

LASARTE-ORIAN

Artistek badute zeresanik jaietan

Lasarte-Oriako artistek izan dute festa aurreko egun hauetan euren trebezia erakusteko aukera. Era guztietako arte lanak egon dira ikusgai bai udaletxeko lokaletan bai REMeko zentruan. Margolaritza, eskultura, maketak, eta tapizak aurkeztu dituzte.

KOLDO GOITIA / LASARTE

Udaletxeko lokaletan antolatu izan den erakustaldian argazkiak, tapizak, komikiak eta beste eskulan ugari aurkeztu dira publikoaren aurrean. Argazkiak urtean zehar egin den ikastaroaren emaitza dira eta eskulturak berriz Montessoria arte taldeak egindako saioren fruitu. Hauekin batera margolaritza lanak eta matxe-paperaz eginiko figurak ere ikus zitezkeen erakustaldian.

Aipagarria da Lasarte-Oriako talde gazte batek argitaratu duen komiki aldizkaria. Gazte hauek margolaritzan eta marrazkigintzan ibili dira eta beren lana komiki aldizkari batean bildu nahi izan dute. Aldizkaria argitaratzeko Udalaren subentzioa lortu dute eta beraien egitasmoa urtero ale bat kaleratzea da. Aldizkari honen lehen alearen originalak ere ikusgai egon dira udaletxeko lokaletan.

Beste arte erakusketa REMeko zentruan egon da eta pintura,



URTEEK sasoiarekin zerikusirik ez dutela erakutsi nahi digute herriko hirugarren gaztarokoek. Ez dute dopping beharrik ez, adorea da beraien sekretua. Harritzeko moduko ekitaldia izan

eskultura eta maketak ziren nagusi. Arrakasta nabaria izan du Pedro Artetxe eskultore lasartearrak eta Estangüi pintore madrildarrak bere *trompez au l'oleil* estiloko pinturrekin.

Erakustaldi hau Lasarte-Oriako auzokideen eta pinturazaleen elkarrekin antolatu dute eta zuhaitza gai bezala hartuaz edozein formato eta estiloko pinturak aurkeztu izan dira. Lanak joan zen igandean egin ziren

Argazkiak urte guztian egin den ikastaroaren emaitza dira eta eskulturak berriz Montessoria arte taldeak egindako saioren fruitu ●

zen atzo eskaini zutena eta VILLAGRANEN argazkiak erakusten duena. Herri honetan sofán tripaz gora egotea da gehiengoaren kirola eta azkenean jubulatuak erakutsiko digute nola astintzen den eskeletoa.

Gazte hauek margolaritzan eta marrazkigintzan ibili dira eta beren lana komiki aldizkari batean bildu nahi izan dute ●

mendian bertan eta txapelketan haurrak eta gazteek parte hartzen zuten kategoria desberdinak jarri ziren.

Pintura eta eskulturekin batera maketak ere aurkeztu dira. Luis Domecq izan da maketagine gonbidatua bere maketa interplanetarioekin. Nahiz eta harridura pixkat sortu horrelako muntaiek, jendearengan jakinmina sortu dute material birziklatuekin egindako lan bitxi hauek.

Koadrilen eguna

- ☞ 07.00etan sokamuturra.
- ☞ 10.00etan boloak eta toka.
- ☞ 14.00etan koadrilen bilera.
- ☞ 14.00etan koadrilen bazkaria.
- ☞ 16.00etan txaranga.
- ☞ 16.30etan koadrilen joakoak.
- ☞ 18.00etan zekorrak.
- ☞ 20.00etan sardinajana.
- ☞ 23.00etan Akelarre-ren berbera.

Caballerren su festek
700.000 pezeta
erreko dituzte bihar

Azken bi urteetan bezala Caballer su-etxeak etxafero sorta ederra erreko du bihar gaueko 11etan. Sasoeta ikastetxeko patiotik botako dituzte aurten, herriko edozein tokitatik hobeto ikusi eta suen prestakizunak lasaiago egiteko. Valenciako etxeak 120 kilo sutauts erreko ditu ikusentzunkizun honetan eta 00.15etan jai amaierako Mascleta valenciarrari emango zaio su ikaragarriko burunda eta zalapartarekin Eskola Berrietan, honela Brigida plaza libre utziz. Antolatzaileek esan digutenez 700.000 pezeta (35.000 libera) kostako da biharko su festa eta Maskleta. Japonesak eta granadak izango dira biharko su artifizialen elementurik garrantzitsuenak.

Caballer su-etxea hirugarrenez etorriko da Lasartera aurten; dagoneko ospe handia du etxe honek, joan zen urtean Donostiako su festen txapelketan garaile izan bait zen. Orain bost urte egin ziren lehendabizikoz su festak Lasarten, Pirotecnia Zaragozana-ren eskutik.

Echarri

ARGAZKI BILKIAK ORDUBETEAN ERREBELATZEN DITUGU

Juan de Urbietta Etorbidea, 8
Tfnoa.: 55 29 39 HERNANIElizondo Plaza, 2 atzekaldea
Tfnoa.: 59 41 48 ANDOAIN

ILEAPAINDEGIA

Maite

Blas de Lezo, 5 Tel.: 370254 LASARTE

ZORIONAK
ETA ONDO
PASA !!

TXIKI JAI

5'30etatik AURRERA
GOSARIAK EGUNERO
K. Nagusia bis Tfnoa: 37 09 77José Maria
Elduairen EgartemendiaElduairen
Hizkuntza Eskola

LASARTEN: Urdaneta kalea, 8 - 1. ☎ 37 27 81

TOLOSAN: Kondeko Aldapa, 28 ☎ 67 47 33

Nafarroa Etorbidea, 12 ☎ 67 00 52

Martin Jose Iraola, 8 - 3. ☎ 67 00 52

- ☐ ELDUAIEN Hizkuntza Eskolak ingeles eta alemanezko ikastaroak eskaintzen dizkizue oso kualifikatua eta esperientzi oso hedatua duen bertako irakaslego hirueledunarekin: ingeles, euskara eta gaztelera.
- ☐ 20 urtetako irakasuntza ondoren hizkuntza bat epe labur batean ikastea proposatzen dizuegu, era atsegina eta arin batetan, ikaslearen gogo eta interes handia eraginez.
- ☐ Gaur egungo irakaspideetan metodo aurreratuenez orniturik gaude.
- ☐ Irakasuntza prozesua zenbait ataletan bilakatzen da, hots:
 - Egitura berrien sarrera.
 - Ikasitako moduen praktika eta errepikapena irakaslearen zuzendaritzapean.
 - Egoera erreala, ulermen eta adierazpen ariketak bideoaren laguntzaz.
 - Kasete, ariketa koaderno eta etxeko lan pertsonalen bidez ikasitakoaren errepikapena, praktika eta gogoan hartzea.
- ☐ Ikasle posible bakoitzak, bere maila jakitearren sarrerako test bat egin du, ahozkoa eta idatzia.
- ☐ Ikasleak, beren ezagueraren arabera 12 maila desberdinetan banatuak izaten dira.
- ☐ Ikasle kopurua gelako 12ra murriztua dago.
- ☐ Eguneroko eskolak, txandakakoak, intentsiboak.
- ☐ Bideoteka eta Sateletoko TB ikasleen eskura.
- ☐ Hiruhilabetero, ikasle bakoitzak bere aurrerapenei buruzko txosten zehatza jasotzen du maila bukaerako testaren emaitzarekin eta aipamen berezia merezi duten aspektuei buruzko irakaslearen adierazpenekin.
- ☐ Inghaterran ikastaroak antolatzen ditugu (Exeter, Cambridge, Londres) haur eta helduentzat, bai udaran edo eta ikasturte akademikoan zehar.
- ☐ Azterketa ofizialak direla eta eskaturiko gaien prestaketa eta garapena, adibidez:
 - Hizkuntza Eskola Ofiziala
 - Britania Handiko, Alemaniako Merkatal Ganbarak, etab.
- ☐ Interprete eta itzulpen zerbitzuak eskaintzen dira.
- ☐ Enprezetarako eskola bereziak.
- ☐ Haurrentzat eskola bereziak (6 urtetatik aurrera).
- ☐ ELDUAIEN (ESKOLA) zure eskuetan geratzen da edozein argibide edo kontsultarako.